



6. Kanalak

6.1. Komunikazio kanalak

Gure moduko enpresa txikiak plazatzerako orduan, **gaur egun sare sozialak nahitaezkoak dira**, jende askorengana ailegatu nahi badugu. Horregatik, kontu ezberdinak sortu ditugu zenbait sare sozialetan, haien artean **Instagramen** eta **Twitterren**. Bertan, esaterako, gure taldeari buruzko **informazioa** (nortzuk garen, zelan sortu zen ideia hau...) eta gure produktuen **ekoizpen prozesua eta diseinu prozesua nolakoak den** erakusten duten argazkiak igoko dugu, **erosleak gugandik gertu sentitu daitezzen** eta **hobeto ezagutu gaitzaten**.



Gainera, **zozketak** egingo ditugu gure jarraitzaileen artean, baita **kolaborazioak** ere beste denda txiki batzuekin.

6.2. Salmenta kanalak

Gaur egun, **denda gehienek online erosteko aukera** ematen diete haien bezeroei. Erosketa **metodo hau erosoagoa** da, bezeroek etxetik mugitu gabe egin ditzaketelako erosketak. Gure bezeroei **erosketa prozesua errazteko, guk ere online erosketa eskainiko dugu**, www.restudy.com izeneko webgunea zabalduz.

Hala ere, gure enpresa jakitun denez biztanle guztiak ez direla Interneten gazteok bezain ondo moldatzen, **betiko dendetan stand** batzuk jarriko ditugu. Gainera, **Matienan biltegi** txiki bat izango dugu, online erostea gorroto dutenentzako edo webgunea eskuragarri ez duten horientzako.

Gure enpresaren **merkatua zabaltzeko**, hainbat azoketan ere parte hartuko dugu, baita salmenta egin ere (**Durangon Berdeago** eta **Durangoko Azoka**, adibidez).





6.3. Banaketa kanala

Gure bezeroek produktuak etxean izan ditzaten, **online metodoan murgilduko gara** eta **online** bidezko erosketen **banaketa**-prozesua, **Correosen** menpe geratuko da. Correos aukera paregabea dela uste dugu, enpresa **publikoa** izateaz gain, azken urteotan bere flotan dituen **ibilgailu elektriko**en ehunekoa **handi**agutzen ari delako.



Denda fisikoari dagokionez, Espainian zehar hainbat dendetan gure produktuak salduko ditugu. Denda batzuetara **guk geuk eramango** ditugu produktuak, beraz ez dugu inolako zeharkako kanalen beharrik. Durangoko **Folder paperdendan**, Traña-Matienako **Petite liburudendan**, Bilboko **Goya paperdendan** edota Bilboko **El Corte Inglés**en guk geuk eramango ditugu produktuak, gure inguruan dauden dendak direlako. Baina denda horietaz gain, Madrileko Gran Vian, Bartzelonako edozein paperdendan edo Donostiako Corte Inglesean gure produktuak ere salduko ditugu.

